

Hizkuntza-politika:

HELBURUA

Euskalduna Jauregiak, enpresa publikoa izanik, geure gizartea elebiduna dela kontuan hartuta, euskarari dagokion lekua eskaintzeko konpromisoa hartu du.

PRINTZIPIOAK

- Hizkuntza eskubideak errespetatzea.
- Hizkuntza-irizpideak betetzea.
- Euskara-Plana kudeaketa-sisteman integratzea.
- Erakunde publikoa denez, gizartearekiko eredu izateko arduraz eta konpromisoz jokatzeko.
- Aipaturiko ardura eta konpromiso bera gainerako enpresa eta instituzioekiko ere.
- Euskalduna Jauregiko ekintza guztietan hartuko da kontuan hizkuntza-politika.
- Beharrezko baliabideak eskaintzea, euskara bermatzeaz gain, hobetzeko eta besteengan ere eragiteko.
- Bezeroaren hizkuntza beharretara egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna oinarritzko ezaugarriak dira.
- Euskarari dagokionez, erakundeko kide guztien (sail eta maila guztietakoak) kolaborazioa eta parte-hartzea.
- Horrez gain, beharrezkoa da Euskalduna Jauregiak azpikontrataturako enpresen eta gure bezeroentzat lan egiten duten enpresen kolaborazioa.
- Euskararen normalizaziora bidean pausuak ematea.
- Euskararen normalizazioari dagokionez, kultura positiboa sortzea.

Ondorioz, zuzendaritza nagusiak, indarreko legeria eta araudia betez, konpromisoa hartzen du eskura dituen eta ezarritako helburua lortzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak emateko, baita horiek merkatuaren eta teknologien bilakaeraren arabera egokitzeko ere.

Zuzendari nagusia

Bilbon, 2018ko urriaren 17an